

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

**2018ko otsailaren 14ko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez laguntza deialdia egiten baita 2018an euskara ikasteko**

BDNS (Identifikatzailea): 389366

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen lege orokorrak, 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/es/index>.

#### **Deialdiaren xedea:**

2017-2018 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (ez ordea joan-etorri, mantenu eta ostatu gastuak), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

#### **Onuradunak:**

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira, besteak beste:

a) Donemiliagako udalerrian erroldaturik egotea, 2017-2018 ikasturtea hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez; baldin eta, ikasturtean zehar, erroldan baja eragiten bada, dirulaguntza erroldaturik emandako denboraren proportzioan emango da.

b) Izena ematean, 16 urtetik gora izatea.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea.

Oinarri arauak: Donemiliagako Udalbatzak 2018ko otsailaren 14an egindako osoko bilkuran onartuak.

#### **Zenbatekoa:**

Deialdi honen zuzkidura 2.000,00 euro da.

Eskaerak aurkezteko epea: eskaerak Donemiliagako udaletxean aurkeztu beharko dira, 2018ko urriaren 31ra arte.

Erdoña, 2018ko martxoaren 12a

*Alkatea*

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO